

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

UPV/EHUren 2024 Gazte Ekintzailtzarako Programaren Ikastaro Osagarria (8. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2024/2025

ARLOA: Gizarte eta Lege Zientziak

KREDITUAK: 7,2 ECTS (*) kreditu

MATRIKULA TASA: 0€ (Asegurua 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Alberto Díaz de Junguitu Gómez de Durana

AURKEZPENA

Ikastaro hau UPV/EHUren Gazte Ekintzailtzarako Programan txertatzen da, eta, aldi berean, UPV/EHUen ekintzailtza sustatzeko programa eta zerbitzuen esparruan sartzen da. Ikastaroa UPV/EHU 2024 Gazte Ekintzailtzarako Bekaren onuradun diren ikasleentzat baino ez da.

Helburu nagusia da gure ingurunean ekintzailtza-proiektuei ekiteko garaian oinarritzkoak diren ezagutza eta gaitasun batzuetan ikasleak sartzea.

Ikasturte hau honela egituratuta dago:

- Aurkezpen-saio bat.
- Zazpi mintegi.
- Programari amaiera emateko saio bat.

Prestakuntza-mintegiekin proiektuak eta enpresak sortzeko eta zuzentzeko gaitasunak josten diren alderdiak jasotzen dituzte. Jarraian, modulu bakoitzaren edukia azalduko dugu, labur-labur:

Aurkezpen-saioa:

- Bilkuraren hasiera eta bertaratuei ongietorria.
- Saioaren lan-plana (Alberto Díaz de Junguitu)
- UPV/EHUko Gazte Ekintzailtza Programa (Alberto Díaz de Junguitu eta Aimar Insausti)
- Iraunkortasuna, stakeholders eta balio sozialaren sorkuntza (Ainhoa Garayar)

1. Moduluak: Jarduera ekintzailea: trebetasun pertsonalak eta testuinguru instituzionala.

- Ekintzailtzaren testuinguru instituzionala.
- Trebetasun pertsonalak eta ekintzailtza.
- Harremanetarako gaitasunak garatzea.
- Emozioen kudeaketa.



2. **Modulua:** Negozio-eredua eta -plana zehaztea.
 - Zer da eredu bat eta negozio-plan bat?
 - Negozio-eredua diseinatzea (BusinessModelCanvas)
 - Enpresa bizia: negozio-ereduaren kudeaketa dinamikoa.

3. **Modulua:** Ekintzaitzaren eta ezagutzaren babesaren alderdi juridikoak.
 - Enpresaren eraketa: enpresa motak eta horiek eratzeko izapideak.
 - Ekitea, bazkideekin edo bazkiderik gabe? Bazkide motak eta bazkide horiei dagokienez kontuan hartu beharreko gai juridikoak
 - Jabetza intelektual eta industrialerako sarrera.
 - Ekintzaitza-proiektuetarako datuen babesa.

4. **Modulua:** Balio-proposamena eta marketin mix-a.
 - Hausnarketa estrategikoa eta negozio-eredua merkataritza-erabakien oinarri gisa.
 - Balio-proposamena eta marketingmix-a diseinatzea.
 - Marketin tradizionala vs online.

5. **Modulua:** Lean Startup.
 - Eric Ries-en Lean Startup metodologiaren oinarriak.
 - Nola aplikatzen dugu metodologia hori ekintzaitza-proiektuetan?
 - Bezero/erabiltzaile potentzialaren arazoa definitzea eta ulertzea.
 - Balio-proposamena eta gutxieneko produktu bideragarria definitzea.
 - Egindako hipotesiak identifikatzea.
 - Esperimentatzea eta neurtzea, proiektuen hipotesiak baliozkotzeko.

6. **Modulua:** Startup baterako finantzak.
 - Businessmodel vs financialmodel: Canvasetik kalkulu-orrira.
 - Startup baten finantzaketa.-
 - Startup baten finantza-plana.
 - Negozio-eredu bakoitzerako KPI nagusiak.

7. **Modulua:** Gure proiektuak komunikatzea.
 - Pitch baten egitura eta edukia.
 - Solaskideari egokitzea.
 - Proiektua banaka defendatzeko jarraibideak.
 - Pitching on baten adibideak

Amaierako saioa:

- UPV/EHU 2024 Gazte Ekintzaitzako Beken barruan landutako proiektuen pitch eta ebaluazio formatuko aurkezpenak.
- Campus bakoitzeko ekintzaitza-programen aurkezpena.
- Ekintzaitzaren gakoak Unibertsitatetik (Ekiñe Izagirre eta Ander Izquierdo).
- 2024ko edizioko hiru proiektu nabarmenen banakako aurkezpena



ZURE BILA GABILTZA

Ikasturte honen helburua ikasleen artean gaitasun hauek garatzea da:

- UPV/EHUko Gazte Ekintzailtzako Programaren helburuak identifikatzeko gai izatea, UPV/EHUko ekintzailtza sustatzeko programen eta zerbitzuen esparruan.
- EAEko ekintzailtzaren erakunde-ingurunean eragile nagusiak zein diren eta zein helburu dituzten identifikatzeko gai izatea.
- Ekintzailtza-prozesurako garrantzitsuak diren trebetasun pertsonal nagusiak identifikatzeko eta garatzeko gai izatea.
- Sustatu nahi den enpresa-ideiaren negozio-planaren hasierako bertsioa egiteko gai izatea.
- Sustatu nahi den enpresa-ideiaren kasu zehatzerako balio-proposamenak eta marketin mixak dakartenari buruzko sarrera-azterketa egiteko gai izatea.
- Enpresa sortu berriei aplikatutako plangintza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren lehen azterketa egiteko gai izatea.
- Ekintzailtzaren eta ezagutzaren babesaren alderdi juridiko nagusiak identifikatzeko eta barneratzeko gai izatea.

BALDINTZAK

- Ikastarora joatea, bere helburuak bete ahal izateko eta ikastaroaren aprobetxamendua lortu ahal izateko modu aktiboan parte hartzeko.
- UPV/EHUren 2024ko Gazte Ekintzailtzako Programaren koordinazioak egindako informazio-, dokumentazio-, ebaluazio- eta antzeko eskaera guztiak betetzea.
- UPV/EHUren Gazte Ekintzailtzako Programaren esparruan planifikatutako mentoretza-saioak eskatu eta horietan aktiboki parte hartzea.
- Proiektuaren azken txostena betetzea. Txosten horretan, zehatz-mehatz adierazi behar dira gauzatutako gazte-ekintzailtzako proiektuaren garapena, jasotako mentoretza-saioak, horietako bakoitzaren ekarpenaren ebaluazio laburra eta jasotako diru-hornidurak izan dituen helburuen adierazpen zehatza.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2024/11/18tik 2025/07/04ra

EMATEKO TOKIA: Presentziala. Elbira Zipitria y Korta

HIZKUNTZA: GAZTELANIAZ



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO
PRESTAKUNTZAREN ARLOKO
ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE POSGRADO Y FORMACIÓN
CONTINUA

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordea.

HELBIDEA: Arriola, 2 Paseoa (Julianategi)

TELEFONOA: 610284063

POSTA ELEKTRONIKOA: nerea.bazo@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.